


Koaderno handia

Nobela lantzeko proposamen-didaktikoa

Egilea: Garazi Otxagabia

EIBZ, 2019

Liburuaren fitxa



Izenburua: Koaderno handia

Idazlea: Agota Kristof

Argitaletxea: Alberdania S.L.

Argitalpen data: 1. argitaraldia 1997ko irailean

Orrialde kopurua: 219

Laburpena

Ikasketa-prozesu baten lekuko egiten gaitu Koaderno Handiak. Pertsonaia nagusien, bi anaia bikien, ikasketa-prozesua da. Liburuak jakinmina pizten du, erakarri eta berarekin eramaten du irakurlea liluraturik. Edonor harritzen baitu horrelako gertaerak hain xalo kontaturik entzuteak. Xalotasun-aire hori lortzeko, Agota Kristofek haurren idatz-tankera antzeratzen du. Irakurketa amaitu eta gero, liburu itxi eta bat baino geratuko da gogoetatsu, irria ezpainetan izozturik eta galderaren bat buruan jauzika.

Zergatik irakurri liburu

Eleberri honetan gudaren krudelkeria ikuspuntu desberdin batetik adierazten zaigu: bi anaia bikien ikuspuntutik. Kontatzen duena berezia den arren, nola kontatzen duen are gehiago. Zazpi urte inguruko mutiko bikiek bizitzea tokatu zaien egoera gogor eta ankerrari aurre egiteko gertatzen zaizkien krudelkeriak ikasketa prozesu gisa hartzea erabaki dute. Horretarako, dena aztertzen dute, ikusi eta entzuten duten guzti hori praktikaren bidez ezagutu nahi dute. Prozesu horretan irakurlea bidelagun izanen da eta narrazio lan honen balioa horretan datza. Ikasleari prozesu horren ulermenean lagunduz, ziurrenik sekula irakurri ez duen testu mota baten aurrean jarriko dugu eta kalitatezko literaturaz gozatzen ikasteaz gain, etorkizunari begira topatuko dituen beste testu mota batzuei aurre egiteko tresnak emango zaizkio eleberri honen lanketaren bidez.

Narratzaile mota desberdinei buruz solas liteke, gerrako literaturari buruz eta gaur egungo hainbat gairen inguruan hausnarketa egin liteke lan honen bitartez: errefuxiatuak, eutanasia etab. Lan interesgarria, gure ikasleak harrituta utziko dituen..

Atariko jarduerak

1. Jarduera. Gerra eta erbestea

Helburuak. Ikasleen jarreran eta aurrezagutzan eragitea:

—*Jarrera*: ikasleengan motibazioa eta interesa piztea.

—*Ezagutza soziokulturala*: literatur lana ulertzeko baliagarri izan daitezkeen informazioaz zein esperientziez jabetzea: Giza Eskubideen aldarriak, gerraren zein erbestearen ondorioak:

— Literatur lanaren gaia egungo testuinguru soziokulturalarekin harremanetan jarri.

1.1. Giza eskubideak. Irakurri jarraian dagoen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 9. artikulua:

“Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu”.

-Giza eskubide bat izanik, esango al zenuke gaur egun eskubide hori lortu dela?

1.2. Guda. Ikusi Siriako gerra eta ume errefuxiatuen inguruko bideo hauek.

1. Bideoa Ikusitako eta pairaturiko biolentziaren tamainak trauma fisiko zein psikologikoak sorrarazten ditu haurrengan (amesgaiztoak, amorruak, konfiantza eza, mamu arteko pentsamenduak, gorputz-mutilatzeak –gerraren zauri fisiko zein sinboliko bilakatzen direnak...), eta ume hauek haurtzaroan errotzen duten mundu-ikuskeran zein gizatasunaren ikuskeran eragin bizia dute.

2. Bideoa Gerraren ondorioz eta erbesteratzeen ondorioz familiak desegituratzen dira: umeak ostan geratzen dira, edo familia desegituratu egiten dira, baita bestelako afektu-sareak ere (lagunak, auzo-komunitateak, eskola-komunitatea...).

3. Bideoa Gerra baten erdian hazteak gerra-diskurtsoak, gerra-praktikak eta gerra-materialak bihurtzen dira ezagutza-bide, eta bestelako ezagutzak zein bizi-baliabideak bigarren maila batean geratzen dira. Umeak ere gerran gatazkaren zerbitzurako erabiltzen dira sarritan.

—Zein sentimendu sorrarazten dizkizu? Nahiz eta egoera horietatik bizirik atera, zein ondorio psikologiko ekarriko dizkiela uste duzu ume eta pertsona horiei?

1.3. Errefuxiatuak. Ezagutzen al duzu *errefuxiatuak ongi etorri* leloa? Ezagutzen al dituzu bi irudi hauek?



Egilea: [Ekologistak Martxan](#)



Egilea: [Txeng Meng](#)



- Bideoak ikusi ondoren, zer da irudiak helarazten duena?
- Bat egiten al du errealitatearekin
- Lehen irudia denborarekin bigarren irudi bihurtu zen, mugimenduko kide batzuek kritikatu egin zutelako irudian ideia desegokiak garatzen zirela. Hau da, mundu-ikuskera egokia ez izateaz gain, errealitatearen ispilu ez ziren ideiak sustatzen omen zituen. Zergatik uste duzu ez zela egokia? Zein mundu-ikuskera transmititzen du, zure ustez?

2. Jarduera. *Idazlea ezagutzen.*

Helburuak. Ikasleen jarreraren eta aurrezagutzan eragitea:

- Jarrera:* ikasleengan motibazioa eta interesa piztea.
- Ezagutza literarioa:* literatur lana ulertzeko baliagarri izan daitezkeen informazioaz jabetzea: autoreak.

Irakasleentzako baliabideak:

Eranskinean autorearen bizitzaren inguruko informazioa eskaintzen zaio irakasleari; bertan, ikasleari beharrezkoa izango zaion informazioa topa dezake.

2.1. Agota Kristof:

- Entzun al duzu noizbait autore honen izena? Hala ez bada, izena kontuan harturik, zein lurralde edota ingurutakoa dela uste duzu?
- Bila ezazu idazlearen izena sarean. Nor izan zen emakume hau?

3. Jarduera. *Gerra umeen ahotsaren bitartez.*

Helburuak. Ikasleen jarreraren eta aurrezagutzan eragitea:

- Ezagutza literarioa (1): narrazio literarioetan gorpuzturiko komunikazio-egoerez jabetzea.
- Ezagutza literarioa (2): narratzailearen ahotsaren ezaugarriak bereizten trebatzea.
- Ezagutza literarioa (3): testu literarioen arteko loturak egiteko gaitasuna lantzea (testuartekotasuna).

3.1. Argumentua. Irakurri *Koaderno handia* liburuaren argumentua:

Ikasketa-prozesu baten lekuko egiten gaitu Koaderno Handiak. Pertsonaia nagusien, bi anaia bikien, ikasketa-prozesua da. Liburuak jakin-mina pizten du, erakarri eta berarekin eramaten du irakurlea liluraturik. Edonor harritzen baitu horrelako gertaerak hain xalo kontaturik entzuteak. Xalotasun-aire hori lortzeko, Agota Kristofek haurren idaztanka antzeratzen du. Irakurketa amaitu eta gero, liburuak itxi eta bat baino geratuko da gogoetatsu, irria ezpainetan izozturik eta galderaren bat buruan jauzika.

—Argumentua irakurri ondoren, zein liburu motaren aurrean gaudela ondorioztatzen duzu? Umeak protagonistak diren Bigarren Mundu Gerrako liburu edo pelikularen bat ezagutzen al duzu?

—Ikusi dugu umeak protagonista gisa jartzea gerra oinarri duten istorioetan oso ohikoa dela. Zergatik uste duzu gertatzen dela hori?

—Argumentua eta idazlearen bizitza ikusi ondoren, zein puntutaraino uste duzu eragin zuela bere literaturan gerran bizitakoak? Zergatik aukeratu ditu bikiak protagonistatzat?

3.2. Gudaren arazoa poemen bitartez. Irakurri Osip Mandelstam poetak egin zuen poema hau:

—Nor da errusieraz mintzo zen bakarra?

—Zein zerikusi du Stalinekin Hungarian Agota Kristofek bizitakoarekin?

—Bilatu sarean nor izan zen autore hau eta zein garrantzia izan zuen poema honek bere bizitzan. Zer gertatu zitzaion Mandelstami Stalinen kontra egiteagatik?

STALIN

Bizi gara. ziur ez gure lurra gure pean
dagoena ote den.
Hemendik hamar oinetara, inork ez
gaitu entzuten.
Baina elkarrizketa xorta bat den leku
guztietan
oroit dezagun Kremingo menditarra.
Bere hatz mardulak zizareak bezain
lodi
bere hitzak konfiantzazkoak, hamar
librako pisuak bailiran.
Bere botoen muturrak distirati,
bere labezomorro mustaxak barre dagi.
Bere inguruan, handi den horren
inguruan, aholkulari lepaestuak.
Jolas egiten du haiekin, sasigizonak
inguruan izateaz pozik.
Hauek animalia hots hunkigarri eta
arraroak egiten dituzte.
Bera da errusieraz mintzo den bakarra.
Bata bestearen atzetik, bere
adierazpenak
zaldi-kaskoen eran entzuten dira:
behin eta berriz ahoskatzen ditu,
berak.
Bete-bete du asmatzen, berea du
arrazoia.

Heriotza bakoitzaren ostean,
georgiarren tribuko kide bat gehiago
da bera,
ahoa marrubi bat sartzen duena.

Osip Mandelstam

Irakasleentzako baliabideak:

Irakaslearentzat lagungarri izanen den poema
honen lerroz lerroko interpretazioa esteka
honetan aurki daiteke (gaztelaniaz dago):
<https://www.letraslibres.com/mexico/sobre-un-poema-osip-mandelstam>

Irakurketa ibilbidea: irakurri aurretik

1. Pasartea. Hasierako egoera ulertuz.

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Ezagutza literarioa (1): testu literarioetan garaturiko sinboloez jabetzea.
- Ezagutza literarioa (2): narratzaileen eta pertsonaien ahotsak bereizten trebatzea.
- Ezagutza literarioa (3): Pertsonaien jokaerak aztertuta, hipotesiak egitea.

1.1. Eleberri hasierako pasarte honetan amak bi anaia bikiak amonaren etxera eramaten dituen momentua islatzen da. Irakur ezazu eta erantzun ondoren datozen galderei.

Amaren ahotsak dio:

-Gurean ez da geratzen jatekorik; ez ogirik, ez okelarik, ez barazkirik, ez esnerik. Deus ez. Ezin ditut mantendu.

Beste ahots batek dio:

-Eta nitaz oroitu zara. Hamar urtean ez zara oroitu. Ez zara etorri; ez duzu idatzi.

Amak:

-Ez dut niretzako ezer eskatzen. Nire haurrak gerra honetatik bizirik irten daitezen baino ez dut nahi. Gau eta egun bonbardatzen dute Hiri Handia, eta jada ez dago jatekorik. Haurrak kanpora eramaten dituzte, ahaideen etxeetara nahiz arrotzenetara, nora edo hara.

Beste ahotsak dio:

-Haurrak arrotzen batzuen etxera eraman baino ez zenuen, nora edo hara.

Amak dio:

-Zure bilobak dira.

-Nire bilobak? Ezagutu ere ez ditut egiten eta. Zenbat dira?

-Bi. Bi mutiko. Bikiak.

Beste ahotsak galdetzen du:

-Zer egin duzu besteekin?

Amak galdetzen du:

-Zer besteekin?

-Txakur emea lauzpabost kumez batera erdi ohi da. Batekin edo birekin geratu eta gainerakoak ito egiten dira.

Beste ahotsak gogotik egiten du barre. Amak ez dio ezer, eta beste ahotsak galdetzen du:

-Badute aitarik, behintzat? Ez zaude ezkondurik, nik dakidanez. Ez nintzen gonbidatua izan zure ezkontzara.

-Ezkondurik nago. Haurren aita frontean da. Ez dut izan haren berririk azken sei hilabeteotan.

-Jar diezaiokezu gurutze bat gainean, orduan.

(12-13. orrialdeak)

Agota Kristof, *Koaderno handia*, Alberdania, 1997, 12-13 orrialdeak.

- Zein harreman mota dute amonak eta amak?
- Zergatik uste duzu bereiziko zirela horrenbeste?
- Zergatik eramaten ditu bi anaiak amonaren etxera?
- Umeek amonaren ahotsaren berri ematean “beste ahotsa” deitzen diote. Zer adierazten du izendapen horrek?
- Amonaren jokabidea eta hitzak ikusita (ikus grisez azpimarratuta daudenak), uste duzu bi anaiak salbu egonen direla etxe horretan? Zein etorkizun izanen dute?

2. Pasartea. Hasierako egoera ulertuz.

Helburuak: Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Ezagutza literarioa (1): narrazio literarioetan gorpuzturiko komunikazio-egoerez jabetzea.
- Ezagutza literarioa (2): Idazketa prozesu eta estiloaren inguruko hausnarketa egitea.
- Lexikoa: literatur lana ulertzeko baliagarri izan daitekeen hiztegia eskuratzea.
- Ezagutza literarioa (3): Idazleak errealitatearen aurrean hura deskribatzeko har dezakeen jarreraren inguruko hausnarketa.

Idazlanak egia behar du izan. Benetan dena, ikusten duguna, entzuten duguna, egiten duguna adierazi behar dugu... Esaterako, debekaturik dago honela idaztea: “Amonak sorgin bat ematen du”: idaz daiteke, ordea “Jendeak sorgina deitzen dio amonari”.

Debekaturik dago idaztea: “Hiri Txikia polita da”; guretzat polita eta beste batentzat itsusia izan baitaiteke.

Gauza bera, idazten badugu: “Ordenantza adeitsua da”. Hori ez da egia; ordenantza, agian, guk ezagutzen ez ditugun gaiztakeriak egiteko gai izan baitaiteke. Beraz, soil-soilik idatziko dugu: “Ordenantzak burusi batzuk eman dizkigu”.

Agota Kristof, *Koaderno handia*, Alberdania, 1997, 44-45 orrialdeak

2.1. Ahots narratiboa. Bi anaiak liburuko pasarte batean idazketa prozesu eta estiloaren inguruko hausnarketa hau egiten dute. Irakur ezazu eta erantzun galderei.
Galdera honetan narratzaile motak birpasatu edota ikasteko aprobetxa liteke.

- Zein ahots narratibo darabil Agata Kristofek liburu honetan? Aukeratu ezazu egokiena:
 - Istorioa kontatzen duena protagonista da
 - Narratzailea orojakilea da, hau da, pertsonaia guztiek hautematen eta sentitzen dutenaren berri ematen du.

- Istorioa kontatzen dutenak protagonista nagusiak dira eta ahotsak bateraturik ageri dira.
- Istorioa kontatzen dutenak protagonista nagusiak dira eta ahotsak bereizirik ageri dira.
- pertsona plurala

—Irakurri al duzu noizbait narratzaile mota hau darabilen testurik?

—Zergatik uste duzu aukeratu duela narratzaile mota hori? Zein efektu sortzen du?

—Esan ondorengo baieztapenak egia edo gezurra ote diren eta eztabaidatu talde handian kontzeptu eta ideia hauen inguruan:

- Sentimendurik eta emoziorik transmititu nahi ez duen narratzaile mota darabil.
- Sentimendu eta emozioz beteriko kontaketa subjektiboa darabil.
- Modu objektibo eta zehatzean idazten du.
- Sentimenduak eta gertaera gogorrak transmititzeko modurik egokiena subjektibotasuna eta dramatizazio estrategiak erabiltzean datza.
- Gertaera krudel, gogor eta ankerrak transmititzeko, zenbaitetan objektibotasunera jo behar da. Hau da, arazoarekiko distantzia hartu behar da, min handiegia sor ez dezan eta geure burua babestu ahal izateko.
- Haurren idaztankera darabil: elipsirik gabeko esaldi motzak eta zehatzak, errepikapenak, zerrenda luzeak, puntuazioa, sasi-erlatiboak...
- Estilo hotz eta lehorrak irakurle eta narratzailearen ahotsaren arteko distantzia urrundu egiten du.

2.2. Kontatzeko modua. Agota Kristofek *El País* egunkariak egindako elkarrizketan honako hau dio: "Nire idazteko modua antzerkitik dator. Elkarrizketa purua, hutsa, soilik beharrezkoa dena, betegarririk gabe, koiperik gabe". Hau da, badirudi adjektibo gutxi, deskribapen oso gutxi erabiltzen direla. Eleberri honetan ekintzak aipatu egiten dira, baina ez du hausnarketarik egiten, ez du denbora inbertitzen eszenetan, denen gainetik "pasa" egiten dela dirudi. Edozein gai tonu eta maila bereko garrantzia izango balu bezala kontatzen ditu.

—Zergatik uste duzu aukeratu duela idazteko modu hori?

Deshumanizazioa gailentzen da eleberrian. Ez dugu ez pertsonaien izenik ezagutzen, ezta gertaerak jazotzen diren herriaren ez herrialdearen izenik ere. Gainera, ezizen krudelak erabiltzen dira: "erbiezpain" "sorgin" "zakurkume".

—Zein efektu sortzen du honek?

2.3. Idazlearen jarrera. Idazleak errealitatea kontatzeko aukera dezakeen jarrera oso desberdina da:

- Gustuko ez duen errealitateari ihes egin diezaioke eta beste mundu eta garai batzuetara bidaiatu, arazoa ahazteko.
- Jendeak kontzientzia har dezan eta mundu hobe bat sortzeko errealitatea kritikatu, denuntziatu eta agerian jar dezake.
- Errealitatea kritikatu, denuntziatu dezake, baina ezer ez aldatzeko asmoarekin. Jarrera eszeptiko bat izan dezake.
- Errealitatea kritikatu eta denuntziatu dezake umorea eta ironia erabiliz.
- Bere barneko sentimenduetara jo eta horien deskribapena egin dezake.
- Errealitatearen deskribapen hutsa egin dezake, gertatutakoa agerian jarritz, baina norberak bere ondorioak eta hausnarketa propioak egin ditzan bultzatuz. Hau da, ez du inoren iritzia baldintzatu nahi.

—Agota Kristofek zein jarrera hartuko duela esango zenuke?

—Irakurri kapituluko izenburuak. Zer iradokitzen dute? Bat egiten al dute aurretik aipatu ditugun idazteko ezaugarri horiekin?

2.4. Hiztegia:

—Jarraian dauden hitzak liburuan maiz aipatzen dira. Lotu hitz horiek euren esanahiekin gezi baten bidez:

Zizeilu	Zigortzeko tresna
Burusi	Pertsonen mintzatuz, lan gogorretarako gaitu, indartu
Zaildu	Zurezko eserleku luzea eta bizkarduna, gehienetan bizkarraren erdiko zatia
Zartailu	Manta

—Jar zaitezte taldeka eta talde bakoitzak aurki ditzala 4 hitz ezezagun. Hauen definizioa hiztegian jarri eta aurreko ariketan egin dugun moduan, jarri zutabe batean hitzak eta bestean definizioak, baina desordenaturik. Ondoren, bete talde batekin trukatu eta eman dizkiguten hitzen definizioak asmatzen ahaleginduko gara.

Irakurketa ibilbidea: irakurri bitartean

3. Pasartea. *Gerra*

Helburuak: Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Ezagutza soziokulturala (1): literatur lana ulertzeko baliagarri izan daitekeen informazioez jabetzea;
- Ezagutza literarioa (2): testu literarioen eta testu artistikoen arteko loturak egiteko gaitasuna lantzea (testuartekotasuna eta diziplinartekotasuna).



Egilea: [Stijn Swinnen](#)

Arropa garbiaren bila etorri gara apaizetxera. Ogi-zerrak jaten ari gara sukaldean neskamearekin. Kaletik deiadar-hotsa datorkigu. Ogi-zerrak utzi eta kanpora goaz. Jendea etxe-atarietan dago; geltoki aldera begiratzen dute denek. Haurrak, aztoraturik, lasterka datoz, garrasi eginez:

-Badatoz! Badatoz!

-Kale-kantotik jeep militar bat dator, atzerriko ofizialez beterik. Jeepa astiro dator, atzetik militar gehiago dituela, beren fusila bandoleran jarririk. Militar horien ondoren, giza tropel antzeko bat. Gu bezalako umeak. Ama bezalako emakumeak. Zapataria bezalako agureak.

Berrehun edo hirurehun bat dira ibilia datozenak, soldaduek eskoltaturik. Emakume batzuk beren umetxoak daramatzate bizkar gainean, lepoan,edo paparraren kontra estuturik. Emakumetako bat erori egiten da; esku batzuk arduratzen dira umeaz eta amaz; hartu eta eraman egiten dituzte, soldadu batek fusilaz keinatu baititu.

Ez du inork hitz egiten; inork ez negarrik egiten; begi guztiak lurrean finkatuak dira. Soldaduen oinetako iltzeztatuena hotsa entzuten da soilik.

Gure pare-parean, beso ihar bat irteten da jendetzaren artetik; esku zikin bat zabaltzen da; ahots batek erregutzen du:

-Ogia.

Neskameak, irribarretsu, bere ogi-zerraren hondarra emateko keinua egiten du; beso luzatuaren eskueran jartzen du; gero, algara zoli batez, tati egin eta ahoan sartzen du ogia; murtzikatu, eta esaten du:

-Ni ere gose naiz!

Geratu den guztia ikusi duen soldadu batek txalo bat ematen dio neskameari ipurdian; atximur egiten dio masailan; eta neskameak keinuak egiten dizkio soldaduari musuzapiatz; eguzkiaren sartaldean hautsezko laino bat baizik ikusten ez dugun arte.

Ettxera itzultzen gara. Sukaldetik, apaiza ikusten dugu, bere gelako gurutze handiaren aurrean belaunikaturik.

Neskameak dio:

-Jan zuen ogiak.

Guk, aldiz:

-Jada ez gara gose.

Gelara goaz. Apaiza jiratu egiten da:

-Nahi al duzue otoitz egin nirekin, ene haurrak?

-Ez dugu inoiz otoitz egiten, ongi dakizunez. Guk ulertu egin nahi dugu.

-Ezin duzue ulertu. Gazteegiak zarete.

-Zu ez zara gazteegia, ordea. Horregatik galdetzen dizugu: Zer jende da hori? Nora daramate? Zergatik?

Apaiza jaiki egiten da; guregana dator. Begiak itxiz, esaten du:

-Jainkoaren Bideak ulergaitzak dira.

Begiak zabaltzen ditu; eskua buru gainean jartzen digu

-Tamalgarria da zuek halako ikuskizunean parte hartzera behartuak izatea. Burutik oinetara dardaraz zaudete.

-Zu ere bai, apaiz jauna.

-Bai, zaharra naiz; dardaraz nago.

-Eta gu hotzak gaude. Soina agerian etorri gara. Zure neskameak garbitu dizkigun alkandoretako bat janztera goaz.

Sukaldera goaz. Neskameak arropa garbien fardela ematen digu. Alkandora bana hartzen dugu. Neskameak dio:

-Oso sentiberak zarete, larregi. Egin dezakezen onena ikusi duzuen guztia ahaztea da.

-Guk ez dugu inoiz ezer ahazten.

Sarrera eramaten gaitu bultzaka:

-Tira, lasai zaitezte! Horrek guztiak ez du zuekin zer ikusirik. Zuei ez zaizue inoiz horrelakorik gertatuko. Jende hori abere jendea baino ez da.

Agota Kristof, *Koaderno handia*, Alberdania,1997, 137. orrialdeak.

3.1.Guda. Ikusi liburu honetan oinarrituta dagoen pelikulako eszena hau, jarraian datorren testu zatiaren adaptazioa dena. Pelikulak krudelkeria modu zuzenagoan transmititzen du: https://www.youtube.com/watch?v=7bKmqK_ryyc (01:13:00-01:16:26)¹

3.2. Juduak.

—Zein da neskamearen jarrera judutarrekiko?

—Zergatik deitzen ditu “abere jendea”?

—Entzun al duzu noizbait juduak animalia gisa tratatzearen ideia? Literaturan oso errepikatua izan da. Irakurri gai honen inguruan hitz egiten duen aipu hau:

“Pentsamendua eta lengoaia gizakia definitzen dituen bi ezaugarri nagusiak dira. Horregatik, biak galtzen direnean erabateko degradazioa gertatzen da: pentsatzeari eta hitz egiteari uztean pertsona animalizatu egiten da, gainerako ugaztunekin partekatzen ditugun biziraupenerako oinarritzko instintuetara erreduzitu egiten da”. *Paseos literarios por la Europa intercultural* (2014)

Aquellos hermosos días de mi juventud liburua, esate baterako, horren adibide da. Liburu hau eguneroko bat da, Anna Franckenaren antzekoa. Bigarren Mundu Gerran neska batek idatzitako testigantza bat da, hala ere, badu liburu honek berezitasun bat: kontzentrazio-esparru barruan idatzirik dago. Liburu honetan, maiz pertsonaiak animalia ezaugarriekin karakterizatzeko joera dago:

“*emakumeak baino, behi talde bat dirudite*” (A.H.D.J.; 34. orrialdea)

“*Pizti bat atsedean hartzen. Pizti malenkoniatsu bat, zalantzarria. Gogoa izango banu, mila aldiz idatz nezake: animalia, animalia, animalia*” (A.H.D.J.; 83. orrialdea)

Zenbaitetan, animalia beharrez, gauza bilakatzera iritsi daiteke:

“*Giza ezaugarrietatik soilik sufritzeko gaitasuna geratzen zaio. Zehaztasunez hitz eginez: sufritu egiten duen objektu bat*”. (A.H.D.J.; 36. orrialdea).

Idea hau nahiko ohikoa izan ohi da guda edota sufrimendua aipatzen den eleberrietan. Juduen aipamenaz gain, ikusi al duzu honelakorik liburuan? Bi protagonistek animalia gisa jokatzeko joera dutela uste duzu?

¹ Pelikula gaztelaniaz dagoen arren, oso hitz gutxi esaten dira eszena honetan eta orokorrean. Beraz, nahiz eta gaztelaniaz izan, interesgarria da ikasleekin pasarte hori lantzea. Klasean landu ondoren, ikasleentzat lagungarria dela ziurta dezakegu.

4. Pasartea. Askatzaileen armada

Helburuak: Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Ezagutza soziokulturala (1): literatur lana ulertzeko baliagarri izan daitekeen informazioez jabetzea:
- Ezagutza literarioa (2): testu literarioen eta testu artistikoen arteko loturak egiteko gaitasuna lantzea (testuartekotasuna eta diziplinartekotasuna).

Asteetan zehar, Amonaren etxe aurretik desfilatzen ikusten dugu atzerritarren armada garailea, orain Askatzaileen armada deitua. Tankeak, kanoiak gurdiak, kamioiak muga zeharkatzen ari dira, gau eta egun. Frontea gero eta gehiago urruntzen da, ondoko herrialdean barrena [...] Amonak dio oso urrutira eramaten dituztela, lurralde hotz eta mortu batera, non lanera behartuko dituzten, hain latz lanera behartu ere ezen, haietako bakar bat ere ez baita itzuliko. Denak hilko omen dira, hotzez, nekez, gosez eta orotariko gaitzez.

Gure herria liberatu eta hilabete batera, iritsi da azkenik gerraren amaiera, eta Askatzaileak gurean geratzen dira, betiko, diotenez. Horrenbestez, haien hizkuntza irakats diezagun eskatzen diogu Amonari.[...]

Ez da baimentzen Askatzaileen edo gure gobernu berriaren aurkako kritikarik ez inolako trufarik. Salaketa txikienagatik, edonor sartzen dute kartzelan, auzitaratu gabe, epaiketarik gabe. Gizonak eta emakumeak desagertzen dira, inork jakin ez zergatik; eta beren familiek ez dute haien berririk izango inoiz. Muga berregin egin dute. Orain igarogaitza da.

Agota Kristof, *Koaderno handia*, Alberdania, 1997, 192. orrialdeak.

4.1. Askatzaileen armada.

- Zein da askatzaileen armada?
- Nork irabazi zuen Bigarren Mundu Gerra?
- Hobe bizi al dira gerra amaitu ostean?

Irakurketa ibilbidea: Irakurri ondoren

Helburuak: Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Ezagutza soziokulturala (1): ikasleekin hasieran deserriaren gaiaren inguruan ikusitakoa eleberriarekin lotzea. Testuarterekotasuna.
- Ezagutza literarioa (2): narrazioaren gertakarien eta osagai sinbolikoen arteko harremanez jabetzea.

—Gogoan izan gerraren eta erbestearen inguruan ikusi ditugun bideoak. Bide horietako zer bizipen irudikatzen dira nobelan?

—Erbesteratzerik kontatzen al da? Egotekotan, nolakoa da familiaren desegitura?

—Hurrek gerra-logikak eta gerra-diskurtsoak barneratu al dituzte? Hala bada, non antzematen da hori?

5. Pasartea. Askatzaileen armada

-Hori ez da dena. Hurrengo atakeak ematen didanean, jakizue ez dudala zuen bainurik, zuen azpiko galtzarik eta zuen pixoihalik nahi.

Zutitu egiten da; alasan miatzen du, bere potoen artean. Botilatxo urdin batekin itzultzen da:

-Zuen botika zikin horien lekuan, botila honetan dagoena botako duzue nire lehen esne-katilukadan.

Guk ez dugu erantzuten. Amonak garrasi egiten du:

-Ulertzen al duzue, txakurkumeok?

Guk ez dugu erantzuten. Berak, orduan:

-Autopsiaren beldur zarete, akaso, kakatiok? Ez da autopsiarik izango. Ez dira zeruak eta lurrak harrotzen hasiko, emakume zahar bat bigarren atakea izan ondoren hiltzen denean.

Guk esaten dugu:

- Ez gara autopsiaren beldur, Amona. Bakarrik pentsatzen dugu zuzper zaitezkeela bigarreanean ere.

-Ez. Ez naiz zuzpertzuko. Badakit ezetz. Horregatik, lehenbailehen amaitzea komeni da.

Guk ez dugu ezer esaten; Amona negarrez hasten da:

-Zuek ez dakizue zer den elbarri egotea. Dena ikusi, dena entzun, eta mugitu ezin. Niri mesede txiki hori egiteko gauza ez bazarete, esker txarrekoak zarete; sugeak, neure magalean berotu ditudan sugeak.

Badiotsagu:

-Ez egin negarrik, Amona. Eskatutakoa egingo dugu; zuk hori benetan nahi baduzu, guk horixe egingo dugu.

Agota Kristof, *Koaderno handia*, Alberdania, 1997, 205-206. orrialdeak.

5.1. Amona.

—Zer egiten dute bikiek? Amonak eskatu bezala, bera hiltzen al dute?

—Zer iruditzen zaizu bikiak egin dutena? Zu honelako egoera batean egongo bazina, zein erabaki hartuko zenuke?

—Zer sentimendu sorrarazi zizun pasarte hau irakurtzeak?

—Zer sinboliza dezake amonak hiltzeko eskatzeak? Zer sinboliza dezake umeek hautu hori hartu beharrak?

—Zer sinboliza dezake amonak hiltzeko eskatzeak? Zer sinboliza dezake umeek hautu hori hartu beharrak?

5.2. Elkarrengandik bereiztea kapitulua.

—Zer gertatu da amaieran?

—Zer egin dute bikiak aitarekin? Zer esan diote? Zertarako? Ongi iruditzen al zaizu?

—Amaierako azken eszenan bi anaiek bereizi egin behar dute. Zergatik? Zein sentimendu eragin dizu azken eszena horrek?

Irakurketatik sorkuntzara

1. Jarduera. Gorputza zailtzeko ariketak

Helburuak: Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Ezagutza literarioa (1):
- Sormenerako eta irudimenerako grina piztea.

Bikiak hainbat ariketa egiten dituzte haien gorputza zaildu eta gudak eskaintzen dizkien krudelkerien aurrean indartsuago bihurtzeko. Zuk ere, beste maila batean, egiten al duzu zure burua edota gorputza zailtzeko ariketarik? Hala bada, idatz ezazu eleberriko eszena horiek imitatuz, zure bizitzarako baliagarria izan daitekeen ariketaren bat (zuk egiten duzuna edo bestela, asma dezakezu).

2. Jarduera. Anaiari gutuna

Helburuak: Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Ezagutza literarioa (1):
- Sormenerako eta irudimenerako grina piztea.

Bikietako batek ihes egitea lortzen du eta bestea amonaren etxean geratzen da. Zer uste duzu gertatuko zaiola anaia bakoitzari? Aukeratu bietako bat eta idatzi gutun bat beste anaiari 1. pertsonan. Bertan, asma ezazu istorioak nola jarraitu duen eta gutun horretan bere bizitzaren berri emango diozu.

3. Jarduera. Musika

Helburuak: Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Ezagutza literarioa (1): testu literarioen eta testu artistikoen arteko loturak egiteko gaitasuna lantzea (testuartekotasuna eta diziplinartekotasuna).
- Sormenerako eta irudimenerako grina piztea.

3.1. Entzun audio hauek eta esan zein abesti aukeratuko zenukeen eleberri honetako soinu-banda gisa.



—Liburuko zein eszenarekin lotuko zenuke horietako bakoitza?

—Beste abesti edo abesti motarik bururatzen al zaizu?

4. Jarduera. Booktrailerra

Helburuak: Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Ezagutza literarioa (1): testu literarioen eta testu artistikoen arteko loturak egiteko gaitasuna lantzea (testuartekotasuna eta diziplinartekotasuna).
- Sormenerako eta irudimenerako grina piztea.

—Ikusi pelikularen trailerra eta taldeka, burutu ezazue Booktrailer bat:

[Koaderno handia --> trailerra](#)

—Hona hemen sarean aurki daitezkeen ikasle batzuek booktrailerrak. Eredu edota inspirazio gisa har ditzakezu:

[Tximeletaren oihua Booktrailerra](#)

[Beti Iparralderantz](#)

[Marta ispiluaren aurrean](#)

[Marta ispiluaren aurrean 2](#)

Irakasleentzako baliabideak:

Hemen Booktrailer bat nola egin pausoz pauso azaldu behar genieke ikasleei.

<http://eibz.educacion.navarra.es/blogak/ikusentzunezkoak/2015/11/03/nola-egin-book-trailer-bat/>

Irakaslearentzako eranskina

Atariko jarduerak, 1.3. Errefuxiatuen ariketa:

- Lehen irudia denborarekin bigarren irudi bihurtu zen, mugimenduko kide batzuek kritikatu egin zutelako irudian ideia desegokiak garatzen zirela. Hau da, mundu-ikuskera egokia ez izateaz gain, errealitatearen ispilu ez ziren ideiak sustatzen omen zituen. Zergatik uste duzu ez zela egokia? Zein mundu-ikuskera transmititzen du, zure ustez?
- Familia tradizional bat irudikatzen da (aita aurretik, amak ematen dio umeari eskua); familia-eredu bakar baten alde egiteaz gain, ez da egia erbesteratzen direnik familia-egituretan, baizik eta desegituraturik eta askotan bakarturik egiten dira erbestealdiak. Horregatik, familia-ikurraz beste egiteko, eta mundu-ikuskera tradizionalaz beste egiteko, bigarren irudia sortu eta hedatu zen, erbesteratu-taldea irudikatzen duena, horien arteko harremanaren berri eman gabe, askotariko egoerak irudikatzeko balio duena.

Agota Kristof

- *El País* egunkarian Agota Kristof idazleari egindako elkarrizketa baliagarria izan daiteke protagonista gehiago ezagutzeko:
https://elpais.com/diario/2007/02/24/babelia/1172277550_850215.html
- Hungaria utzi behar izan zuen guda zela eta eta bere ahizpa bikiarengandik bereizi zuten.
- Neuchâtelera erbesteratu zen 1956. urtean. Honen gizonak Hungarian sobietarren aldeko erregimenaren kontrako erreboluzioan parte hartu zuen. Alaba jaio berriarekin muga pasa zuen. Lehenik Austriara joan ziren, gero Suizara. Han fabrika batean lan egiten hasi zen: "Muchas veces he pensado que más habría valido que él hubiera estado dos años en la cárcel que yo cinco en una fábrica. Suiza me parecía el desierto. Lo pasé mal". Lo dice sin énfasis. En el fondo, habla como escribe: yendo al grano, sin circunloquios, sin subrayados."
- Gerraostea guda bera baino okerrago bizi izan zuela dirudi: "Hacía un frío terrible y no había comida. Además, llegaron los rusos y se llevaron lo poco que había. Hungría se convirtió en una colonia de la URSS. Tuvimos que aprender ruso, geografía rusa, historia rusa. ¿Que si hablo ruso? Qué va. Nadie aprendía nada. Si ni los profesores sabían. ¿Cómo va a aprender alguien que no quiere aprender de alguien que no quiere enseñar?"
- Ez zuen hizkuntza ongi menperatzen eta fabrika horretan inork ez zuenez hitz egiten, zail egiten zitzaion hizkuntza ikastea. Honek abantaila bat bazuen: "Tenía sus ventajas.

La monotonía me permitía escribir poemas mentalmente. Los transcribía al llegar a casa después de acostar a la niña. En húngaro".

- Fabrika horretan lan egiten aritu ostean, fabrika eta senarra utzi zituen. Hortik aurrera, bere alaba hezteari, frantsesa ikasteari eta idazteari eskaini zion denbora.
- 1986. urtean Hungariatik atera eta 30 urtetara, alegia: Antzezlan batzuk frantsesez idatzi zituen eta irratian ere transmititzen hasi ziren. Bi urtez idazten egon ondoren, *Koaderno handia* publikatu zuen eta sari ugari jaso ostean eta 33 hizkuntzatarata itzuli ondoren erreferentzia bihurtu zen Frantzian
- 1988. urtean *La Preuve* eta 1992an *Le Troisième mensonge* publikatu zituen eta honela anaia-biki horien trilogia osatu zuen.

Hungaria:

- 1956ko erreboluzio hungariarra: Bigarren Mundu gerra amaitu zelarik, sobietar armadak Hungaria okupaturik zuen. 1947an komunistek lortu zuten aginpidea, eta eratu zen konstituzio berriak Herri Errepublikak bilakatu zuen herrialdea.
- Urte hartatik aurrera SESB (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna)-ren politika ereduari jarraitu zitzaion.
- 1956an, Imre Nagy lehen ministro erreformazalea burua zela, iraultza piztu zen. Europako sortaldeko nazioek ez zuten esku hartu eta sobietar gudarosteak gogor zanpatu zuen matxinada, eta jende asko hil. 200 mila pertsona inguruk alde egin behar izan zuen.
- Ihes egindako horien artean 21 urte zituen Agota Kristof zegoen. Bere 4 hilabeteko alaba eta senarrarekin alde egin behar izan zuen.



Lan hau [Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia](#) baten mende dago.

Honakoak egin ditzakezu:

- Partekatu — partekatu, kopiatu eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan.
- Moldatu — nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu edozein xedetarako, baita merkataritza-xedeetarako ere.

Honako baldintzen arabera:

- Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.
- PartekatuBerdin — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.